

## Taxoareko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza

Taxoareko Kontzejuak, 2009ko ekainaren 26an egin bilkuran, erabaki zuen behin betikoz onestea Taxoareko mugapeko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza. Hona hemen haren testua:

### I. TITULUA

#### *Xedapen orokorrak*

1. artikulua. Ordenantza honek arauak ezartzea du xede, Taxoareko mugapeko herrilurretako ondasunen administrazioa, erabilera, zainketa, berreskuratzea eta aprobetxamendua erregulatzeko.
2. artikulua. Herrilurretako ondasunak dira herri honetako bizilagun guztiek aprobetxatu eta erabil ditzaketenak.
3. artikulua. Herrilurretako ondasunak besterenduezinak, preskribaezinak eta bahitezinak dira, eta ez dute tributurik ordainduko.  
  
Haien izaerak eta tratamendu juridikoak ez dute aldaketarik izanen, edozein dela ere haiek aprobetxatu edo erabiltzeko modua.
4. artikulua. Hauek dira herrilurretako ondasunen gaineko arauak: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen gaineko Erregelamendua; Nafarroako Foru Zuzenbide Administrazioaren gainerako arauak; Herrilurren Ordenantza hau eta, bestela, Foru Zuzenbide Pribatuaren arauak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 40. artikuluko hirugarren atalean xedatutakoa deusetan galarazi gabe.

### II. TITULUA

#### *Administrazioa eta xedapen egintzak*

5. artikulua. Herri ondasunen gaineko ahalmenak, dela haien erabileraz, dela administrazioaz, dela aprobetxamenduaren araubidez, dela antolamenduaz den bezainbatean, Taxoareko Kontzejuari dagozkio, ordenantza honetan azaltzen den moduan.  
  
Herrilurretako ondasunen inguruan Taxoareko Kontzejuak hartzen dituen erabakiek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute, Herrilurrei buruzko Foru Legean ezarritako kasuetan.
6. artikulua. Lurzati txikiak saldu edo trukatzeko desfektazioa egiteko, Nafarroako Gobernuak haien onura publiko edo soziala deklaratu beharko du eta, hori baino lehen, Taxoareko Kontzejuak justifikatu beharko du dagoen asmoa ezin dela beste bide batzuen bitartez lortu, hala nola lagapena eginez edo kargak ezarritz, horiexek izanen baitira lehentasuneko aukerak.  
  
Herrilurretako ondasunak desfektatu ondotik beste batzuei lagatzeko edo kargak ezartzeko hartzen diren erabakietan, itzultze klausula sartuko da, egintza horien helburuak edo baldintzak desagertu edo betetzen ez diren kasuetarako.

Halakorik gertatuko balitz, lur horiek Taxoareko Kontzejuaren ondarrera itzuliko lirateke herrilurretako ondasun gisa.

Herrilurrei buruzko Foru Legearen 6. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

### **III. TITULUA**

#### *Herrilurretako ondasunak defendatu eta berreskuratzea*

7. artikulua. Taxoareko Kontzejua herri ondasunak zaindu, defendatu, berreskuratu eta hobetzen ahaleginduko da eta kontra eginen die horientzat kaltegarri izan daitekeen edozein pribatizazio saiari edo bestelako ekintzei.

8. artikulua. Taxoareko Kontzejuak berez eta noiznahi berreskuratzen ahalko du herri ondasunen jabetza, aldez aurretik legelariaren txostena ikusi eta interesdunari entzunaldia emanda. Beharrezko denean, ekintza zibilak sustatuko dira, herri ondasunak berreskuratu eta defendatzeko.

9. artikulua. Jabetza Erregistroak igortzen dizkion ediktuen berri emanen dio Taxoareko Kontzejuak Nafarroako Gobernuari, lursailen inmatrikulazioa edo herrilurrekin mugakide diren lursailen hedadura soberakina dela eta. Kontzejuak hartuko du jakinarazpen horien inguruko erabakia.

10. artikulua. Taxoareko Kontzejuak Nafarroako Gobernuaren alde aurreko onespren berriazkoa beharko du, ondasunak herri ondarrerako berreskuratzearen eskualdaketarik egin nahi izanez gero.

11. artikulua. Taxoareko Kontzejuak administrazio bidea erabiliko du beti, baimen, kontzesio edo beste ezein tituluren kariaz herrilurretako ondasunen gainean sortutako eskubideak eta haiek ekarritako okupazioak iraungitzeko, eta ahalmen hertsatzaileez baliatuz. Aldez aurretik kalte-ordaina eman ala ez, zuzenbidearen arabera izanen da.

12. artikulua. Taxoareko Kontzejuak, herrilurrei buruzko kontratuetan partaide denean, interpretatu eginen ditu eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak argituko.

Interpretazioen gaineko erabaki horiek berehala hartuko dute indarra, eta ez dute galaraziko kontratugileek bide juridikzionalan behar den deklarazioa lortzeko duten eskubidea.

13. artikulua. Taxoareko Kontzejuak herri ondasunak defendatzeko bidezko diren ekintzak sustatzen ez dituenean, herritarren ekimena posible izanen da zehaztuko den moduan. Ekintza horrek aurrera eginez gero, sortutako gastuak itzuli beharko dizkie Kontzejuak herritarrei.

### **IV. TITULUA**

#### *Herri ondasunen aprobetxamendua*

#### **I. KAPITULUA**

##### *Xedapen orokorrak*

14. artikulua. Ordenantza honek aprobetxamendu hauek arautzen ditu:

a) Laborantzako herrilurren aprobetxamenduak.

b) Herrilurretako bestelako aprobetxamenduak.

15. artikulua. 1.-Orokorrean, herrilurretako aprobetxamenduen onuradun izateko, familia unitateen titularrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adinez nagusia izatea, edo bere kontu bizi den nahiz judizialki gaituta dagoen adingabea izatea.
- b) Aranguren ibarreko Biztaleen Udal Erroldan Taxoareko bizilagun gisa inskribatua izatea, hiru urteko antzintasunaz gutxienez ere.
- c) Taxoaren urtean bederatzita hilabetez gutxienez jarraian bizitzea.
- d) Aranguren ibarreko Udalarekin zerga betebeharrak egunean izatea.

2.-Etxebizitza berean bizi diren guztiak familia unitateko kide izatzen hartuko dira. Nolanahi ere, familia unitate independentetzat hartuko da guraso erretirodunek osatua, familiakoekin bizi arren; betiere, haien diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino apalagoak badira.

3.-Artikulu hau interpretatzerakoan sortzen ahal diren zalantzak Taxoareko Kontzejuaren osoko bilkurak argituko ditu, banan-banan.

## **II. KAPITULUA**

### *Laborantzako herrilurretako aprobetxamendua*

16. artikulua. Taxoareko laborantzako herrilurren aprobetxamenduak hiru modutan egingen dira, lehentasun ordena honen arabera:

- a) Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamenduak.
- b) Herritarrendako esleipen zuzeneko aprobetxamenduak.
- c) Enkante publikoan esleitzea edo Taxoareko Kontzejuak zuzenean ustiatzea.

Taxoareko Kontzejuak laborantzako herrilurren aprobetxamendua esleitzeko hiru modu horiek erabiliko ditu, bata bestearen ondotik, emandako ordenaren arabera.

### **1. ATALA**

#### *Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamenduak*

17. artikulua. 1.-Aprobetxamendu modu honen onuradun izateko, familia unitateen titular diren herritarrek 15. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eta, familia unitateko kide bakoitzarengatik, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren %30 baino txikiagoak izan beharko dute, edo familia unitatearen diru-sarrerak guztira soldata eta erdiaren azpitik egon.

2.-Familia unitatean gorputzez edo adimenez ezinduak diren kideak baldin badaude, agiri bidez egiaztatuta, lanbide arteko gutxieneko soldataren %60ren pareko diru-sarrera kontatuko da kide bakoitzeko.

3.-Errenta mailak zehazteko jarraitu behar diren irizpideak datu objektiboetan oinarrituz finkatuko dira. Hartuko dira kontuan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena, soldatak, laborantzako lurrak errentamenduan nahiz beste edozein tituluren bidez edukitzea, landalurren, aziendaren eta industriaren gaineko kontribuzioen kapital zergagarria, hirilurren gaineko kontribuzioarena, norberaren etxebizitzari dagokiona kenduta, baita horren gisako beste edozein datu ere.

18. artikulua. 1.-Honako azalera hau ezarri da lote tipoarentzat modalitate honetan:

-Lehorreko alorrak: 25 erregu.

2.-16. artikuluan ezarritakoa betetzen duten onuradunei emanen zaizkien loteak zehazteko, koefiziente hauek aplikatuko zaizkio lote tipoari:

- a) Hiru kide bitarteko familia unitateak, 1 koefizientea; hots, 50 erregu lehorreko lur.
- b) Lau kideetik seira bitarteko familia unitateak, 2 koefizientea, hau da, 70 erregu lehorreko lur.
- c) Zazpi kideetik bederatzira bitarteko familia unitateak, 3 koefizientea, hau da, 80 erregu lehorreko lur.
- d) Bederatzi kide baino gehiagoko familia unitateak, 5 koefizientea; hots, 90 erregu lehorreko lur.

19. artikulua. Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamendurako finkatutako baldintzak betetzen dituzten familia unitate anitz badira, eta horrek arazo sozialik sortzen badu, Taxoareko Kontzejuak, aldez aurretik Nafarroako Gobernuaren baimena jasota, Ordenantza honetako 17 eta 18. artikuluetan adierazitako faktoreak beheratu ahalko ditu proportzionalki eta arrazoituz, baina inoiz ez igo. Halakoetan, Taxoareko Kontzejuak laborantzako herrilurren %50 erabiliko du, gutxienez, banaketa modu honetarako.

20. artikulua. Aprobetxamendua ez da zortzi urtetik beherakoa izanen. Urte anitzeko laboreen kasuan, eta Udalak baimendu ondoan, epe hori laborearen bizitzaren arabera luzatu ahalko da.

21. artikulua. Herrilurretako lurzati onuradunek kanon hauek ordaindu beharko dituzte, aprobetxamendu modu honetan:

-Lehorreko lurak: 2 euro erreguko, urtean.

Modalitate horiek 2009. urterako proposaturiko kanonari dagozkio eta urtero eguneratuko da, nekazaritzako KPIrekin, gehienez ere. Nolanahi ere, kanonak Taxoareko Udalak ordaindu beharreko kostuak estali beharko ditu, gutxienez ere.

22. artikulua. Onuradunek zuzenean eta pertsonalki landu beharko dituzte herrilurretako lurzatiak eta ezin dituzte errentan eman edo ustiatu, lan pertsonala ez den beste moduren baten bidez.

Onuradunei esleitutako lurzati laborantza hainbaten artean egitea ere zuzeneko laborantza pertsonaltzat hartuko da, haiek kooperatibetan edo legez eraturako lan taldeetan elkartzen direnean eta kide guztiek 15. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

23. artikulua. Ordenantza honi dagokionez, zuzeneko laborantza pertsonala izateko, esleipen hartzaileak edo bere familia unitateko kideek egin behar dituzte laborantza lanak, ordenantza honen 15. artikuluan jasotzen diren ezaugarriak izanik, eta soldatapekorik ezin izanen dute hartu, non ez duten urtaroen edo nekazaritza ustiapenaren gorabeherek horretara behartzen. Alabaina, zuzeneko laborantzan pertsonalki diharduen laborariaren izaera ez da galduko, Kontzeju honen iritzian, laborantza pertsonala egitea eragozten dion eritasun edo aldi baterako beste arrazoirengatik soldatapekorik hartzen denean.

Horrelakoetan, hamabost eguneko epean jakinaraziko zaio Taxoareko Kontzejuari, behar den baimena eman dezan.

Ezintasun fisikoa edo besteren bat, Kontzejuaren iritzian, behin betikoa bada eta herrilurrak norberak zuzenean lantzen ahal ez baditu, 24. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

24. artikulua. Ezintasun fisikoa edo besteren bat izateagatik onuradunak ezin baditu lurzatiak zuzenean eta pertsonalki landatu, esleitzeko momentuan edo aprobetxamenduaren epean, Taxoareko

Kontzejuak esleitu eginen ditu hurrengo aprobetxamendu moduaren bidez, hau da, herritarren arteko esleipen zuzeneko aprobetxamenduaren bidez. Kontzejuak lurzatiaren titularrei esleipenetik ateratako diru-sarrerak ordainduko dizkie, kanona kendu ondotik.

Kontzejuak ezintasun fisikorik edo besteren bat noiz dagoen erabakitze eskumena du, eta egokiak iruditzen zaizkion agiriak eskatuko ditu.

Beren laborantza apartzerian eman edo lagatzen duten onuradunei herrilurretako lurzatiak kenduko zaizkie esleipen aldia bukatu arte.

Herrilurrak kentzen zaizkien onuradunek apartzeria edo lagapena gertatu zenetik lortutako mozkinak Udalaren Diruzaintzan sartu beharko dituzte.

25. artikulua. Taxoareko Kontzejuak egokiak iruditzen zaizkion egiaztapenak egiten ahal ditu edozein unetan, laborantza zuzenean eta pertsonalki egiten dela ziurtatzeko.

Honelakoetan ulertuko da lurrak ez dituela zuzenean norberak lantzen:

- a) Nekazaritzako makineria izanik, berari esleitu herrilurrak lantzeko erabiltzen ez duenean.
- b) Nekazaritza Batzordearen ustean, esleitutako lurzatiak, ordenantza honetako 22, 23 eta 24. artikuluetan xedatzen denaren arabera, norberak zuzenean lantzen ez baditu.
- c) Ondoko alderdi hauen gaineko egiaztapenak eskatu eta agindu epean aurkezten ez badira: lurra lantzea, lehengaiak erostea eta produktuak saltzeko lanak, beraiek edo Kontzejuak baimendutako pertsonak eginak.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean nekazaritzako etekinik aitortzen ez duenean, horretara beharturik ez egonik ere.
- e) Esleituriko lurzatiaren %80 bederen lantzen ez denean.
- f) Laborantzako lurren jabe izanik, hirugarrenei errentan emanak dituztenak.

## 2. ATALA

### *Herritarren arteko esleipen zuzeneko aprobetxamenduak*

26. artikulua. Lurzatiak 1. sailean ezarritakoaren arabera banatu ondoren, geratzen diren laborantzako herrilurrak, baita onuradunek zuzenean eta pertsonalki lantzen ez dituzten lurzatiak ere, zuzenean esleituko dira 15. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten familia unitateko titularrak diren herritarren artean baldin Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren alta emanda badaude.

27. artikulua. Kontzejuak lehentasunezko esleipena egin ondoren zehaztuko du herritarren arteko zuzeneko esleipeneko loteen azalera, gelditzen den azalera eta eskatzaileen kopurua kontuan hartuta.

28. artikulua. Esleipenaren epea 20. artikuluan adierazitako berbera da.

29. artikulua. Aprobetxamendu modu honen bidez herrilurrak hartzen dituzten onuradunek kanon hau ordainduko dute:

-Lehorreko lurrak: 20 euro erreguko, urtean.

Zenbateko horiek 2009. urterako proposatutako kanonari dagozkio; urtero eguneratuko da, K.P.I.aren igoera gehituz gehienez ere.

30. artikulua. Esleipen hartzaileak berak zuzenean eginen du laborantza eta, horretarako, 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.

31. artikulua. Taxoareko Kontzejuak beretzat gordeko du herrilurretako laborantza lurren %5, onuradun berriei esleitzeko.

32. artikulua. Aurkeztutako eskaerak lurra baino gehiago badira, lehentasuna duten herritarrendako esleipena egin ondotik, diru-sarrera handiagoak dituzten familia unitateetako titularren eskaerak kenduko dira.

### **3. ATALA**

#### ***Taxoareko Kontzejuaren ustiapen zuzena edo enkante publikoa***

33. artikulua. Taxoareko Kontzejuak, lehen eta bigarren ataletan ezarritako prozedurak aplikatu ondoren, laborantzako lurra sobran baldin badago, enkante irekian egingen du esleipena, eta hurrengo banaketa noiz egin behar den, ordura arteko epea emanen du.

Kontzejuak finkatuko du erreguaren hasierako prezioa; inguruko antzeko lurra errentan hartzeko prezioaren antzekoa izanen da. Zenbateko horiek K.P.I.aren arabera eguneratuko dira, urtero.

Enkantea egin ondoan laborantzako lurra sobran gelditzen bada, Taxoareko Kontzejuak zuzenean ustiatzen ahalko du.

### **4. ATALA**

#### ***Esleitzeko prozedura***

34. artikulua. Kontzejuaren iragarki oholean ediktua agertuta, hamabost egun balioduneko epea irekiko du, eskubidea dutela uste dutenek herrilurren esleipena eska dezaten.

35. artikulua. Eskaerei zinpeko aitortpena erantsiko zaie:

a) Taxoareko biztanle izatea, gutxienez hiru urteko antzinatasunez, eta udalerrian urtean bederatziz hilabetez bederen bizitzea.

b) Udal honekiko betebeharrak fiskalak ordainduta izatea.

c) Familia unitatea osatzen duten kideak. Lehentasuna duten herritarrek haietariko inork ezintasun fisikorik edo psikikorik duen aipatuko dute.

d) Familia unitateko kide bakoitzak zenbat erreku dituen jabetzan, bai udalerrian honetan bai besteetan, lehorreko lurra diren edo ureztatzeak zehaztuta.

e) Familia unitateko kide bakoitzak errentan edo jabetzaz besteko tituluren baten bidez lantzen dituen lurra, bai udal mugape honetan bai besteetan, lehorreko lurra diren edo ureztatzeak zehaztuta.

f) Familia unitateko kide bakoitzaren diru-sarrerak: nekazaritzaren, industriaren edo zerbitzuen sektorekoak, gizarte segurantzako pentsioen bidezkoak edo bestelako errentatakoak.

Zinpeko aitortpena egiaztatzeko, Taxoareko Kontzejuak ahalmena izanen du beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eskatzeko, errenta mailak egiaztatzearen; haiek agirietan eta datu objektiboetan oinarrituko dira, 17.3 artikuluan zehazten den bezala.

g) Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea, herritarren arteko zuzeneko esleipena eskatzen dutenentzat.

36. artikulua. Herrilurren Batzordeak proposaturik, Taxoareko Kontzejuak onartuen zerrenda onetsiko du esleitzeko era bakoitzean, lehentasunekoan edo zuzenekoan. Zerrenda hori behin-behinekoa izanen da.

37. artikulua. Aprobetxamendu mota bakoitzeko behin-behineko zerrenda Kontzeju honen iragarki oholean jarriko da hamabost egun balioduneko epean, bidezko diren alegazioak egin ahal izateko. Alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikoa bilakatuko da, besterik gabe.

38. artikulua. Alegazioak eta zuzendu beharreko akatsak izanez gero, horien gaineko ebazpena emanen du Kontzejuak, eta mota bakoitzean herrilurretako lurzati onuradun izateko eskubidea dutenen behin betiko zerrenda onetsiko du.

39. artikulua. Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamenduaz baliatzeko eskubidea duten familia unitatearen titularren behin betiko zerrenda ikusita, Taxoareko Kontzejuak, ordenantza honen 18. artikuluan ezarritako ezaugarriak betetzen dituzten loteak esleituko ditu.

Loteak banatzean, haietaz baliatzeko eskubidea duten bizilagunekin ados jartzen ahaleginduko da; desadostasunik bada, zozketa egingen da.

Lurzatiak esleituta, onuradunen eta dagozkien herrilurretako lurzati zerrenda jarriko da jendaurrean 15 egunean, Kontzejuaren iragarki oholean. Kontzejuak onetsi beharko ditu zerrendak.

40. artikulua. Argitaratutako zerrenden aurkako alegazioak, halakorik bada, behin ebatzita eta akatsak zuzenduta, Kontzejuak behin betikotzat joko du laborantzarako herrilurren aprobetxamenduen esleipena.

## IV. TITULUA

### *Arau-hausteak eta zehapenak*

44. artikulua. Arau-hauste administratibotzat hartzen dira honako hauek:

- a) Erabilera zuzenean eta pertsonalki ez egitea.
- b) Aprobetxamenduen kanonak Kontzejuak finkatzen dituen epeetan ez ordaintzea.
- c) Aprobetxamendua nabarmen gaizki edo osorik ez egitea.
- d) Zertarako esleitzen den herrilurra, beste zerbaitetarako erabiltzea.
- e) Udalak esleitu gabe, herrilurrak lantzea, nahiz eta landu gabeko lurrak, hots, larre utziak, izan.
- f) Landaketa iraunkorrek egitea Udalaren baimenik izan gabe.
- g) Esleipenetan zehaztutako epeak ez errespetatzea.
- h) Ordenantza honetan xedatutakoari kontra egiten dioten egitate guztiak.

45. artikulua. Adierazitako arau-hausteetan, kontzesioa kenduta zehatuko da.

Taxoaren, 2009ko ekainaren 30ean.-Alkatea, María Jesús Ibarrola Iribarren.